



ONDARROAKO UDALA

1

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/1

Eguna: 2011-10-19

Hasiera-Amaiera: 19:35 - 20:50

Tokia: Batzar-gela 2

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

---

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Miren Urresti	EAJren ordezkari Batzorde arduraduna
Arantza Atxurra	Ezker Abertzaleko kideko ordezkaria
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Eladino Gonzalez	Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria

### Batzarrera etorri ez direnak:

---

Lea-ArtiBAI euskarari  
Historiazaleak  
Radixu irratia  
Zatozte

Maite Rey Batzordearen idazkaria

### AZTERGAIK:

1. Udal euskara Batzordearen lan ildo nagusiak aurkeztea.
2. Kale neurketa egiteko Klusterrak egindako eskaintza onartzeko proposamena.
3. Gaztezuolo aldizkariak egindako eskaintza onartzeko proposamena: "Irakurriz gozatu ekimena".
4. Eskariak eta galderak.

### Esan-eginak:

1. Batzordeburuak azaldu du Udal euskara batzordeak markatuko dituela lan-ildoak eta udalak, berriz, lantalde bat duela euskara arloan, berak eta Iera Arantzamendik osatua, eta bera izan arren batzordeburu, lantaldearen ekimenak ekarriko dituela batzordera. Lan esparru nagusi bi izango dituzte kontuan: Udala eta udalerria.

Bestalde esan du UEMArekin hartu-emanetan ari direla.

Eta batzarren maiztasunari buruz, berriz, proposatu du hilean behin batzarra egitea.



ONDARROAKO UDALA

2

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/1

Eguna: 2011-10-19

Hasiera-Amaiera: 19:35 - 20:50

Tokia: Batzar-gela 2

2. Udaleko lantaldeak egindakoa azaldu dute batzordeburuak eta Iera Arantzamendik: Klusterrak 2010eko udazkenean kale neurketa egiteko proposamen bat zegoen Udalean, baina aurrekontuan ez zegoen aurreikusita gastu hori. Klusterrekoekin hitz egin dute eta hitzartu dute azaroan egitea neurketa eta datorren urtean txostena. Horrela eginda, ordainketa zati bitan egingo da 2012an.

Batzordekideak ados egon dira.

3. Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintza onartzeko proposamena azaldu da: “Irakurriz gozatu ekimena”. Funtsean proposamena da Udalak harpidetza ordaintzea aldi batez (hiru hilabetez, adb.) gazteei; handik aurrera, beraiek, gustuko badute, harpidetzarekin segitzeko.

Aurkeztu dira aurrekontu aukera ezberdinak (harpidetza-aldia eta adin-tarte ezberdinak aukeran). Eta egokiagoa ikusi da Batxilerreko ikasleentzat DBHkoentzat baino. Miren Urrestiren ustez jakin behako genuke liburutegian ote dagoen, eta baldin eta Udalak gazteen harpidetza hartu behar badu, liburutegian ere harpidetza hartzeko proposamena egin du.

Dena dela, zalantzak egon dira irakurzaletasuna bultzatzeko ekintza bat ote den –Bakarne Aretxabaleta– eta horri buruz Miren Urrestiren iritzia izan da lantaldearen udaleko lehentasunak argitutakoan argiago ikusiko litzatekeela proposatutako harpidetzak egitea merezi duen ala ez.

Horri Iera Arantzamendik erantzun dio esanez oraindik ez daudela lehentasunak finkatuta. Gauzak horrela, gaia mahai gainean geratu da, printzipioz.

4. Eskariak eta galderak.

**Euskararen eguna:** Batzordeburuak Euskararen egunaren gainean zerbait egiteko aukera planteatu du, baina hori egitearekin batera azaldu du aurrekontuan 300 € eskas daudela. Horri buruz hitz egin da eta ikastetxeetako ordezkariak azaldu dute nor bere programa eginga duela horretarako.

Horri buruz

**Ahotsak.com:** Bakarne Aretxabaletaren iritzi webgunean oso elkarriketa gutxi duade Ondarroan eta horren zergatiaz galdetu du. Idazkarian azaldu dio Lea-Artibai Euskarari elkarteak bideratzen duela gaia Ahotsak elkartearekin lankidetzan eta Udalak 5.000 € inguruko diru-laguntza eman diola horretarako.

**Antiguako Ama egoitzan euskararen erabilerarik eza:** Edurne Arantzamendik azaldu du bere kexaren zergatia: ipintzen dituzten kartel guztiak gaztelera idatzita daude eta, bere ustez, udalaren lokala izanda, Udalak berak zerbait egin beharko luke. Batzordeburuak erantzun dio



ONDARROAKO UDALA

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/1

Eguna: 2011-10-19

Hasiera-Amaiera: 19:35 - 20:50

Tokia: Batzar-gela 2

hain zuzen, gai hori lantzen ari direla, Udalaren hizkuntza irizpideak, eta hartuko dituztela neurriak.

### ERABAKIAK

- **Kale neurketa egiteko Klusterrak egindako eskaintza onartu da.**
- **Gaztezulo aldizkariak egindako eskaintza momentuz ez da onartu.**

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey